OSCAR MANSO
Sugarraren sakontasuna
itzulpena: Joseba Barriola
BOOKTEGI

BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

OSCAR MANSO

sugarraren sakontasuna

itzulpena:

Joseba Barriola

Prest egon behar duzu zure zeure sutan errea izateko.

Nola birjaio zaitezke errautsa bihurtzen ez bazara?

Friedrich Nietzsche

Horrela mintzatu zen Zaratustra.

AURKIBIDEA

INTRO

I

II

LEHEN LIBURUKIA – DESAFEKTUAREN DEFENTSA

I

II

III

IV

V

VI

VII

VIII

IX

X

XI

XII

BIGARREN LIBURUKIA – LABEZOMORROAK

HIRUGARREN LIBURUKIA

SCHRÖDINGER

DISIDENTZIAREN APOKALIPSIA

NIRE ETSAIA DEABRUA BADA

DONOSTIA 2016.

AKROSTIKOA

IZENEZ ETA HARRIEZ I

IZENEZ ETA HARRIEZ II

IZENEZ ETA HARRIEZ III

AITA HIL

KONPROMEZUA

KAIKUAREN BLUES-A

HAU ARBOL BAT DA

LAUGARREN LIBURUKIA – BERE IRUDI ETA ANTZARA

TRACK 1

TRACK 2

TRACK 3

TRACK 4

TRACK 5

TRACK 6

TRACK 7

KODA

INTRO

I

Haurra, sutara.
Ez diozu zergatik beldurrik eduki behar
sugarraren sakontasunari.

Fenix laztandu ezazu
eta beha:

Hegazti harrapariak kaleak patruilatzen ari dira, bai,
baina, eta zu? Nor zara?

Ez aingeru ez deabru, badakit,
bakarrik mugitzen den kaskarkeria,
engranajera batzeko
atea irekitzen duen betiereko REM fasea.

Hain kaskar, ez zenuela posible
zure bihotza ere makinaren parte
izan zitekeenik sinistea.

Badakit, nitaz ere
hitzegiten dut. Nire kaskarkeriaz
eta zeru grisetaz

(Etorkizunarako asmatzen dut:
zeru urdina eta hondartza eguna
zirrikitutik 2,50 sartuz.

15 minutu.)

Haurrok, sutara.
Sugarran sakondu.
Gehenan jaio ginen
obra-hondakin kartsua izanik

Mundua zirku bat bada
zu hartza izan nahi duzu
monozikloan biraka,

aldi berean protagonista eta esklabua, badakit,
nik ere frogatu dut fokuen beroa.

Ez dut karpa utzi nahi
adimen bikaina dudalako,
trakestasun hutsagatik baizik.

Desoreka da nire oreka.
Desilusioa nire lilura.

Alderantziz ere funtzionatzen du:
Oreka da nire desoreka.
Lilura da nire desilusioa.

(Etorkizunarako asmatzen dut: 10 gurpileko monozikloak.)

II

Entzun, nere haurra, sugegorrien errunaldi,
herrestan doan sukarraren izerdi epel,
desobeditu beharko dituzun hitz hauek:

Sugarran sakondu,
txinparta bakoitzaren erdiguneraino
aitzurtu, bidea egin
bere jugularreraino. Desesperazioa
lehoiaren ahutzan
alferrikako aldagaia da.

Ez dago beste irteerarik itomena baino
ez baita Jainkoaren lurraldea
euliarena baizik.
Ez zaude Aitaren legearen pean
beraren hilobiaren gainean baizik.

Ireki ezazu zauria.
Bere erresuminean sakondu.

Ez zaizu auria orbainduko
bere begiekin obsesionatua bazaude,
maite baduzu,

Suaren sakonenean,
hezur horren barne barnean,

han dago giltza.

Jakintzaren arbolatik jan zenuen
eta ez dago jada atzera bueltarik,

baina har dezakezu Lilith eskutik
eta mundua zeharkatu
kaosa, xamurtasuna eta benetako xalotasuna
hedatuz.

Entzun ondo, nire haurra: edertasuna bada.
Badakit ikusten duzula aingeruaren
hilotza murtxikatzen duen harra,
baina bada zerbait
darion kiratsa eta bere harrokeriaren zehaztasuna baino
harantzago.

Bada zerbait harantzago. Fida zaitez. Dena ez da
hutsune hau. Dena ez da
eremuan flotatzen ari diren arrainak bezela
azkenetan egotea. Batzutan oxigenorik badago. Batzutan edertasuna.
Zin dagizut, ene haurra, sugegorrien errunaldi.
Ez da dena ezdeus bat zarela jakitea
eta hala ere idazteari ekitea. Dena ez da
kaleetan larriturik zure izena pintatzea,
lehioetatik jauzi egitea,
desesperatuki oihukatzea
besarkada jasotzeko duinak garela. Edertasuna bada.

Ireki ezazu zauria. Bere saminean sakondu
zeure buruarekin aurrez aurre
gelditu arte. Lasai.

Arnasa hartu.

Ezein eskuk ez dizu min gehiagorik egingo
zure eskuak baino.

(Etorkizunarako asmakizuna:
autolaguntzarako poesia.
Ziurtasunaren premia duten
memeloentzako gida-liburua.)

Haurra, sutara.
Ez dago zergatik beldurrik eduki behar
sugarraren sakontasunari.

LEHEN LIBURUKIA – DESAFEKTUAREN DEFENTSA

I

Etsipen elekriko honetan murgildu naiteke

eta denborak sendatzen duelakoan, dena ahal duelakoan

itxurak egin;

denborak gezurtiak harrapatzen dituela

eta berdin elbarriak,

ez dut gogoan jadanik zein ordenean den hau,

eta miseriaren mugan,

heroiak piltzarren artean kantatzen duten gunean,

ziurtasunezko larruazala duen deabrua

denok lasai gaitezen. Esan

ez ote duzun amestu noizbait

zure gogoa eta nirea bat bera zirela,

zuk hitzegin eta nik entzuten nuela eta

denak zentzurik bazuela eta dena ulermena zela. Esan

ea diodan hau ez ote dizun zauritzen

ziurregiak, alferrikakoegiak diren hitzen ertzak, agian,

zauritzen duten bezala,

elkar ulertzea ez ote den are grina gehiagoz

elkar maitatzea edo gorratatzea

ahal balitz

(eta beti ahal da, ez da?)

ea entzuten dituzun hitzek,

baina baita ahoskatzen dituzun horiek ere,

noizbait zentzurik izan ote duten,

zerbaitez beteak egon ote ziren

eta ez ote diren beti

azala soila izan. Esan

ea zu ere

denborak dena senda eta dena ahal duela

sinistearen desesperazio elektriko honetan

murgildu ahal zaitezken,

denboran,

epaile gupidagabe bakarra bezala,

egiazko jainko bakarra balitz bezala,

sinistu ahal duzun,

orain, jada, inork

jainkoetaz sinisten ez duen

garai honetan

nahiz eta horien bila dabilen desesperatuki

pentsaezinezko izkinetan.

Nola izango da hori jainko bat

larru eta hezur hautsiko automata memelo hori,

besterik ez bada trapu bat baino

neonezko euripean

hatsantzen ari den txakur gaixoa?

Nola izango da hori jainko bat

pisura eta desordutan saltzen bait da

sukar telebisiboaren gaueko etsipenen artean? Eta haatik, esan

ea zintzotasun osoz baiezta dezaidakezun

kezko munduak promesten zizkizuten

jainkoak ez dituzula inoiz gurtu,

ea ez ote duzun errautsa arnastu

oxigenoa, kutsadurarik gabeko aidea,

promoziozko eskaintza ebangelikoa zelakoan.

ez ezazu gal

egia, pakea, edertasuna, argitzapena

eskuratzeko okasioa.

Ez du preziorik,

eta hala ere

prezioa ordaindu dugu, tentelak bakarrik

nahasten bait du prezioa

paperari eta metalarik ematen diogun balio lurruntsu horrekin,

azken honen faltak

jarauntsirik gabe uzte bait ditu behartsuak,

ankapetzen ditu ankapetuak. Esan

ea bizkarrean zenbaki bat duten jainkoei,

hitzaren funanbulistei,

autsiabartza arrotzei

otoitz egin ote diezun.

Har dezaket sakonki arnasa eta itxurak egin

zoriontasuna hautu bat dela,

denok, salbuespenik gabe, une guztitan

behar eta ahal duguna.

Itxurak egin dezaket aurkakoa

porrota delakoan; baina, zergatik

zaurituko dut horrela nire burua?

Zergatik gogaitu nire burua

postaletan zirriborraturiko hitzak,

telesailetan ahozkatutako hitzak,

erakuslehiotako modako uste sendoak

seriotan hartuz?

Ez, ez da preziso

zoriontasuna iraunkorrean sinistea

ezta denbora hartzea

epailetzat eta orbainegiletzat.

Ez diot saminari samina gehiago erantsiko

antsietatearei antsietate gehiago

itomenari itomen gehiago.

Jateko, maitatzeko behar dudan

elektrizitate honekin nahikoa da;

gurari-unean bertan asetutako desioen

paradisua prometatu bait ziguten,

eta benetako zoriontasuna da, mundu guztiak horrela dio,

etxe bat

elektrodomestiko dotorez betea,

urteko oporrak

herrialde exotiko batean,

amodioa,

baina batez ere sexua,

salgai jarritako azken tresnekin

substantzialki hobetua.

Zoriontasuna da

norbera norberarekin pakean egotea,

lobotomizatua.

Dena, beti, hain den elektrikoa,

hain maneiukorra, hain arraroki ulergarri,

hain botoia zapaldu mundua, plazer osoz, desgertarazteko,

traizioz, deskuiduan. Esan

ea esku honetan sartzen den guztia

ez ote den unibertsoan sartzen den guztia,

ea badagoen neurririk gure neurritik at,

ea sumatzen duzun zure ongizatea soilik denik

zaku hautsi hau, edonolako mugaren ausentzia. Esan

ea ez ote zu zeu amesten zuzen eta ontasunez betea,

eta hala ere badakizu hildakoan

hil-autoa semaforo guztitan geldituko dela

autopistetako ordainleku guztitan ordainduko duela;

hilko zarenean

eskoletako haurrak zoriontsu aterako direla eskoletatik,

maitaleak elkarrekin batera iritsiko direla orgasmora,

bi buru eta hiru buztan dituen

kume bat jaioko dela: hilko zarenean

yonkiak jarraituko duela ospitaletan

lapurtzeko ahaleginetan, apaitzak sermoi estandar bat

botako duela, zure auzoan

denok oihuka iruzkinduko dutela azken partidua,

edo azken eskandalu nolabaiten politikoa,

zure lagunak, irrifar konplizeak eginez,

ez direla atzeratuko berriz elkarrekin biltzeko,

eta, agian, planeta berri bat aurkituko dela

eta gizakiak hura konkistatzeko ametsa egingo duela,

holakoa bait da zure neurria;

horrelakoa ere zure handitasuna. Esan

ea hau dena ulertzen duzun, hau dena

asimilazen ote duzun eta ez ote zaren

haurrek egiten omen duten bezala,

zu ere negarretan lehertzen,

zu, zure ametsetan zuzen eta on

ikusten zaren hori,

zaborrez inguraturiko lorea,

oinarrizko biziraupen auziagatik soilik

mimesia besarkatzen duzun hori,

eta soilik zeruak baino haratago

eta lur hau baino haratago

zerbait existituko balitz,

soilik horregatik, badaezpada ere, otoitzat egiten badituzun

eta esaten duzu: oh, Jauna, libra nazazu
besteengan bermea bilatzetik
ni baino niago sentitzen dudalako

zeren eremita, ihes egiten dion mundu hori gabe,
ez da inor,
ez da ezer: libra nazazu eromenatik

egur-zainetan, zoladuraren arrakaletan,
beldurren eta burdin-saren atzean
marrazturiko aurpegiak ikustetik,
eta nire neure bestaldetik
bizitza entzutearren
ateetara belarria hurbiltzetik;

eta libra nazazu, oh, Jauna, denbora desiratzetik,
asetzen ez duen airetik, desnorabidetzen gaituen amodiotik:
ez bait dut nahi suzedaneo aseptikorik,
zentzudunegiak, ordenatuegiak, eta sailkatuegiak
klase ertaineko kutxatxo txikitxotan,

ezta inoren jabe izatea, ezta ezerrena ere,
ezta oraindik bizirik, oraindik errealak diren
gorputzen berotasunarena; libra nazazu, oh, Jauna
besteengan nire nia bilatzetik,

nazioen bilaketa eta jatorriaren beren mitoak

erostetik;

libra nazazu besteengan

niaren bertsio hobegoagorik bilatzetik

nire aisialdiaren denborarako

plazer-objektu gisa autoeratzetik

nire burua serioegi hartzetik,

nire burua gehiegizko bromatan hartzetik;

libra nazazu

poemei barkaberatasuna eskatzetik,

agian jainko galdu baten ordezkoak bait dira,

inoiz, egia esan, nire mahaiara gonbidatu ez dudan jainkoren batenak,

esaten duzu, otoitz egiten ari denaren modura

Baino, nola izango da hori jainko bat

zimurrez beteriko haurtxo izutu patetikoa?

Murgil zaitezke etsipen teoriko honetan

zeure burua arrazoiaren gorena dela pentsatuz,

albatroen begiradaz eta okadaren zaporea ahosabaian,

ezjakinek, galduak egonik bere burua aurkituko dutela ziur,

lurrean hedatzen dituzten mapak kontenplatuz.

Bruxula bat

eta nolabaiteko usai-ahalmena

aski izango balira bezala

bere agnosiaren gauean.

Baina ez, noski. Eta zuk badakizu.

Eta badakizu uste duzula dakizuna baino gehiago badakizula.

Gai zara jakiteko edozein giza-neurritik baino haratago,

gizatiarra zarelako, jainko jainkoen artean,

erridikuluaren giltzarria, badakizu,

eta haatik, ez al da hori sentitzen duzuna?

Ez al da hori sentitzen duzuna eta lau haizetara oihukatzen ari zarena

(oihuka zaudela jakin edo ez, ez nazazu ez zaitez engaina)?

Zergatik autobaieztapen hori

jakinda ere karta guztiak,

goiz hala berandu, eroriko direla,

kartak banatzen dituzten esku guztiek

hatz-hezurrak markatuak dituztela,

metakarpoek gehiago dakitela gezurtiak izateagatik

deabru izateagatik baino?

Murgildu zaitezke etsipen teoriko honetan,

ziurtasunez ez-jakitearen amildegian,

ea lurzoruak irentsiko ote dituen zure pausuak kalea zeharkatzerakoan

ea arnasten dugun airea aire den edo amets,

ea jasotzen duzun amodioa amodioa den edo inertzia,

bainan badakizu, usaitzen duzunean, miseria ikusten.

Badakizu hutsa ikusten justizia hitza nork

ahoskatzen duen arabera.

Gizaki hutsalak merezi duen

isiltasuna entzuten badakizu.

Gauza gutxi jakingo duzu, gauzaren bat, akaso,

(gutxi, denak dakizula uste baduzu ere)

baina badakizu ez daukala mundu guztiak anima bat,

ez zaiola ez mundu guztiari eztarria uzkurtzen

ezta lokitan bihotzak taupadak ematen.

Ez dela mundu guztia zalantzan egoten

lehioa irekitzearen eta sitsa ankapetzearen artean.

II

Ba al dago atzaparrak hazigabeko zapelatzik, drogadiktoentzako erretiro espiritualik, bidai organizaturik jende organizatuarentzat, erretako bizkarrentzat polilarruzko, sofaren bat iraungitako loteria txartelen bat ameslari porrokatuentzat?

nahi dut prezio oneko hondeatzaile bat eta kristalezko begi bat esango didana Hong Kong-eko denbora zehatza eta munduko hizkuntza guztiak ezagutu nahi ditut eta beren azentuak eta Lurreko gizon eta emakume guztiekin oheratu, eta haur guztiak arbuiatu eta oso geroko zahartzaroan zaharreriaz hil eta miretsia izan eta errespetatua eta maitatua eta jelostua eta eskuztatua eta azkenian gorrotatua izan eta egotzia eta erbesteratua eta plazerez hautaturiko geroko zahartzaroan berriro hil apeta ematen didan une zehaz egokian eta une bakoitzean nahi dudan guztia nahi dut eta une bakoitzean nahi dudan guztiak aspertzen nau eta desira hau amaigabe eternalki asegabea manipulatzaile eta despota eta hori da zoriontasunaz ulertzen dudana

Ba al dago 900 hazbeteko telebistaren bat Coparen finala ikusteko sarreraren bat errepideetako kluben baterako deskontu txartelaren bat orgiak santuetsitzen dituen erlijioren bat kontsumo grinatsua baino droga indartsuagoren bat?

Nahi dut nahi dut nahi dut nahi dut katu bat irendu eta azkazalak ebaki ahal izateko kanario bat kaiolatzeko txakur bat bezatzeko elefante bat monozikloan ibiltzen erakusteko seme bat manipulatzeko eta uniformez jazteko maitatu nahi dut minik izangabe larrutan egin kulpa sentimendurik gabe ondoriorik gabe erahil eta hau dena esan nahi dut hau dena esan inork bere miseria nigan proiektatu gabe epaitua izan gabe nahi dut nahi dut nahi dut hau dena zuk nahi izatea badakit hau dena nahi duzula denok gurtzen bait dugu Supermerkatuaren Andere Gurea

Supermerkatuaren Andere Gurea

zein ongi portatu naizen aurten

huron bat erosi dut

suge bat, kanario bat

bi hautsontzi

azken belaunaldiko mobil bat

liburu zahar baten lehen ediziokoa

ohe bat

piolet bat

gauza bat

ez dakidana zertarako balio duen

ezta nola deitzen zaion

Supermerkatuaren Andere Gurea

Ba al dago herrialde merkerik zure biltegietan?

Haur galduren bat ekonomia ministroren bat etxeren bat parkeren bat hondartzaren bat ozeanoaren bat sotck-ean?

Supermerkatuaren Andere Gurea

ba al dago zurea ez den ospitaleren bat

misilen bat

gobernuren bat

gogamenen bat?

Nahi dut nahi dut nahi dut erloju-bonba bat laser-ezpata bat usain-kengarri

bat desinfektatzaile bat desparasitatzaile bat indarkengarri bat

nire kontzientzia bezala marka txurikoa

Supermerkatuaren Andere Gurea

datozela nigana zure aintza guztia eta zure iragarpenak

datozela nigana zure indar guztia eta zure patenteak

Supermerkatuaren Andere Gurea

eguneroko gure ogia

azalik gabeko xaflatan nahi dut

asepsia plastikoan bildua

lizunari erresistentea

200 metrotaraino urperagarria

herdoilgaitza

suntsiezina

adimentsua

gantz bajukoa

Supermerkatuaren Andere Gurea

zure katalogoetan gure esentzia bilatzen dugu

eskeintza hoberenak

deskontu hoberenak

Supermerkatuaren Andere Gurea

zure kreditoa epe erosotan ordaintzeko

grazia emaiguzu

Emaiguzu fidelizazio txartela

ongarrigaien eta landare usaintsuen Erreinua

bixkotx eta laboreen Edena

Andere Gurea zerutik guri begira zaudena

eta dena ikusten duzuna

zure mila anteoju eta zure istiluen aurkako poliziekin

Supermerkatuaren Andere Gurea

zureak dira grazia eta ohorea

zureak gure hobariak

zureak gure bizitzak

Supermerkatuko Andere Gurea

artikuluz beteta zaude

Bedeinkatua zara

merkatari guztien artean

eta bedeinkatua izan dadila

zure sabelaren fruitua

boterea

Heresia Santua

Niaren Ama

Erregutu ezazu gu erosleon alde

orain eta gure heriotzaren orduan

Amen

III

Ongi etorriak infernura

fedearen eta patuaren exegeta hipokritok.

Ongi etorriak

Heretikaren, sugarretan dagoen pakearen

eremu grabitatoriora.

Ongi etorria memoria,

Historia,

garaituen huts sakratua.

Ongi etorriak heriotzaren gune gorenera,

bortxakeriaren klimaxa,

humiliatuen aitagurea.

Ongi etorriak herpesara,

zauri irekien kiratsara,

zurikeria eternalera

eta, isilik,

orain soilik hitzegiten dute

hezurrek:

ospetsu drogatuak narrasten direlako

lurzoruen barna agian egun bat

maitagarrien kontu zaharrak

supermerkatu bakoitzean jainkoen ondoan

digito bakoitza memoriz ikasten duten
kobratzaile aspertuak
hilobi bakoitzean jadanik ahazturiko izen bat
iraunkortasun saiakera hutsala

narrasten direlako sotck options-ak
egun batez bere ametsatik bortxatuak,
errealak hila dagoen guztia bezala
piztu ditzagun bada argizari guztiak
laudatua izan bedi huts guztien Jauna:

Zeren denek dabiltzate asebeteak
teledendako mekanismoz zakilak luzatuz
laser depilazioa egin ondoren arinki kaltetuak
bere bular operatuetatik
adeitsu irrifarrak eskeintzen

Laudatua izan dadin insektua
basoan despistaturik sartu
eta han ezer ez zegokiola sentitu zuena.

Zeren, oraindik, gelditzen bait da gizatasunik.
Laudatua izan dadila.
Oraindik entzun dezaket merkatuetan
bere jainkoei sakrifizioak eskeintzen.

IV

Urrea da

zure lokatzazko

bihotzak

desira duen guztia.

Amesten duzu

Midas zoroaren

ametsa

zure ametsa dela,

baina haren etsipena

ez zaizu heltzen,

horretarako preziso delako

arima bat izatea.

Garai batean hautsa izan ziren

eta orain inperioak agintzen dituzten

jainkoei otoitzak egiten diezu,

zer espera zitekeen

zugandik?

V

Denok pekaturik gabeak.

Inor ez da asesinoa.

Mila hizkuntza hitzegiten duen

eta ahotik zianuro bitsa botatzen duen

gizonari kasu egin.

Begira bere letagin izugarriak,

miretsi bere begi predatzaileak.

Bera da, monstruoa.

Bera da, erruduna.

Bera da airea arrarotzen duena.

Bera da urak pozointzen dituena.

Begira nola ohiukatzen duen eta bihurrikatzen den

gure akuilu-eztenaren ukipen zorrotzarekin.

Nolako hipokresiaz negar eta erreguka ari den

gure epaitegiaren aurrean gurutziltzatua eta bilutsik.

Denak pekaturik gabeak

Inor ez da asesinoa.

Begira bere odola borborkaria

gure espeziearen pekatuak ureztatzen.

Farra egin bere malkoekin.

Ttu egin bere oihuen gainean.

Nork eman zion hasiera borroka honi?

Nork hartu zuen lehena aizkora?

Aske gara

lehen harria botatzeko.

Ezer ez da garrantzitsuagorik

norbera sinisteko kapaz den hori baino.

Ezer ez da garrantzisuagorik

lo hartzerakoan osatzen dugun errelatoa baino.

Ezer azalduezina den gau ilunean

ezer ez da garrantzitsuagorik

pekatutik libre garela

asesinoak ez garela

gure eginbeharra babestea eta epaitzea

orekatzea eta haustea dela

errepikatzea baino.

Eta horregatik

hortzen tartean labana beti,

horregatik hilotza

gure eresi guztietan.

VI

Gure Jaun eta Jainko hori,

zu bazara nor

aintza, ohorea eta ahalmena

hartzeko,

zeuk baitzenituen

gauza guztiak egin

eta, zuk nahi izan duzulako,

baitira sortu eta dira oraindik

Apokalipsia 4:11

VII

Hau da lebiatan

hezur jada disolbatuetan

kraskaturiko santua irentsi zuena,

fosa amankomunean nahasturiko

mito eta haurren hondakinak bezala.

Hau da Seol,

Hades,

sua eta sufrezko Gehena,

metaforaren ur hasarretuen artean

agertzen den basapiztia.

Hau da Sortzailearen hats kiratsduna

bere miseriaz kutsatzen gaituena.

Perfekzio helbarria

bere irudi eta antzera.

Hau da Paradisua suntsitzen duen piztia.

Herrestan doan sugea.

Hauek dira gure beldur guztiak,

erein dezagun beldurra.

Hauek dira gure aitzaki guztiak,

gure etsaien bihotza jan dezagun.

Oh, Aita.

Esker mila, Aita.

Hau da desiratzen dudan guztia, esker mila, Aita,

itunak hautsi, zeruak odolustu,

esker mila, Aita,

gurutzeak erre,

itzalak jazarri,

epaiak eman,

eguzkiari sartu

gelazko ezpata puto bat,

esker mila, Aita.

Hau da desiratzen dudan guztia

Oh, Aita

Hau da basamortuan alderrai ibili zen profeta

zure hitzaz eta zizarez elikatua,

zure etorreraren berri onare

eta inontzentziaren debekuaren

predikua egin zuena

Hau da

sakrifizioaren aldarean

bere semearen larruazala ausikika

erauzi zuen ama.

Hau da zure koleraren mana erabat idortua.

Zure hitza amodioa eta gorrotoa,

senidetasuna eta genozidioa inspiratuz.

Esker mila, Aita; non zaude, Aita?

Elektrizitate ilun batek zeharkatzen du mundua.

Oti-izurrite baten iratzartzean

premua hil egingo da.

Itoko da Faraoia

bere malkoen olatu erraldoien artean.

Gerrarako deia dabil tenpluetan.

Esker mila, Aita. Zure alde hilko naiz, Aita.

Non zaude, Aita?

Nork du arrazoia

denok arrazoia abandonatu dutenean?

Nor dago arrazoiaren beldur

denok bizkarra eman diotenean?

Hau pake-mezu bat da

Bortxaren bidez araztua.

Hauek dira sakramentuak

odolarena eta gorputz moztuarena

barreiatze-bonbarena

eta errekuntza txuriaren suarena.

Hau da bidea, egia eta bizitza.

Esker mila, Aita. Hain galdua nengoen, Aita!

Hau da Unibertsoaren kreazionea

eta Arkan sartu zituen Noek espezie bakoitzeko bikote bat,

baina zerbait gertatu zen dinosaurioekin, Aita,

ez ziren ongi portatu dinosaurioak.

Larru-jotzea, satsukeria, sodomian erori ziren

zorizko jokoetan aritu ziren, gehiegi edan zuten, drogatu ziren,

hilaurtu zuten, ez zuten festak santifikatu,

zientzian jarri zuten fedea,

lapurtu zuten, gezurretan aritu, lagun hurkoaren emaztea desiratu zuten,

kondoiak erabili zuten, Partidu Komunistaren kide egin ziren.

Umore-senarik ba al duzu, Aita?

Txantxa jasaten al duzu?

Zerbait gertatu zen dinosaurioekin, Aita.

Non zaude, Aita?

Zein bazter ilunetik ari zara guri beha eta epaitzen?

Hau da nire heriotza, Aita.

Komiko triste guztien izenean,

atsekabetutako pailazo guztien izenean,

bere joku eta irrien atzean

errendatua

Hau da nire heriotza,

sentitu behar denean sentitzen dutela frogatuz

negar egiten duten eta izkutatzen ez diren

guztien izenean errendatua

ez lehenago

eta ez beranduegi.

Elektrizitate ilun batek zeharkatzen du mundua:

suntsituak suntsitzen ditu,

madarikatuak madarikatzen ditu,

ankapetuak ankapetzen ditu.

Nolatan jaurtikiko dituzu merkatariak

Tenplua bera

merkatua danean?

Ontasuna sortu bait zenuen

baina baita beraren urruntzea ere

Bizitza sortu zenuen

eta bizitzarekin akatzeko milioi bat modu.

Edertasuna sortu zenuen

eta bere izaki itxuragabetuak.

Zoriontasuna sortu zenuen

eta zoramena.

VIII

Eta bestela esaidazu

oh, Aita,

nork egingo du gau honetan

osto idorren artean lo

eta

euri zaparradetatik babesteko

nork jarriko du bere buru gainean guardasola hautsia?

Nork joko du xirula gozo bat

hain mingoski

agure guztiak lerroan jarrita

Hammelinen atzetik dantzan jarriz?

Esaidazu, Aita,

nork begiratuko zaitu zu ikusi gabe?

nork hitzegingo dizu zuri hitzegin gabe?

nork eskeiniko dizu irrifarra ahoa ezkardaz beteta?

Zein da bere izena?

Zer da izen bat?

Nork hitzegingo du zurekin gau honetan

—oh, Aita, esaidazu, Aita--

mesias ahaztuen ohantze gainean lo egonik

bota batzuk zillarrezko txanponen txilin-hotsez

hurbiltzen diren bitartean ?

Zuk sortu bait zenuen maitasuna

eta bihotz hilak.

Beha ezazu zure seme-alabak

banan bana.

Leittu ezazu beren begiradan.

IX

Korrok egiozue

apoen erregeari.

Korrokatua izan dadila

Urmaelen Jauna.

Gure hezurren

hezetasunak

ernaldu dezala

kupre eta koltan meatzeak

Korrokatua izan dadila

Jauna.

Orain

ilargiak bere gorozkien koroa

argitzen duen unean,

orain goroldio beltzak

gure begiak estaltzen dituenean,

korroka ezazute zuen salbazioaren alde.

Korrokatua izan dadila Jauna

Oh-igel

Oh Urmaeletako igel.

Unibertsoaren Apo Gorena

Zue Aintzaz

beterik daude

ur geldituak

eta ura hustutzeko guneak.

Aintza Apo Erredentoreari.

Korroka ezazute aleluia bat.

Porositatearen legeak

babesten gaitu.

Aleluia.

Apo Erredentorearen

Esku Ikustezina.

Poztasunez dar-dar egin anaiok,

jaio bait da

Zapaburu Jainkoa.

Urmael honetatik

eta ez Belenetik

zeharkatuko ditu

tenpluen estolda guztiak,

eta Jaunak dominstiku egindakoan

pulmoniaz gaixotuko da mundua,

eta Jauna pulmoniaz gaixotzen danean

mundua hezur-muina soilik izango da.

Korrokatua izan dadila Jauna,

Unibertsoaren Jainkoa.

Beterik daude

elbarriak eta txiroak

bere Gloriaz

Oh, Aita Gurea

lurrazpitik jariatzen duzuna,

findegietan gantzutua izan zinen.

Bete daitezela

zure odol ilunez

hirietako

motorrak.

Oh-igel.

Oh-igel lurrazpikoan

Oh, Aita Gurea

fibra optikoan itxuraldatua,

Zure exean sartzeko

duin ez gara,

baina Zure hitz bakar bat

aski litzateke gu denok akatzeko.

X

Aleluia gol anaiok

lur honetan maitagarriak dantzan ari bait dira

birjina ustelak bezala bilutsiak.

Aleluia gol anaiok

Jainkoa hil da,

gora mitoa!

Gamelua leoi itxuraldatu zen

lehoia haur

haurra futbol-baloia.

Ireki daitezela nire txakrak

Irakurri ezazue nire barra-kodea:

Jainkoa hil da,

dena zilegi da!

Jainkoa hil da,

gora zonbia!

Nire egia

Zure egia

Bere egia

Nire sinismena

Zure sinismena

Bere sinismena

Denak erlatiboki faltsuak

Denak erlatiboki egiazkoak

Errelato handiak erori ziren.

Lauda ditzagun mikroipuinak.

Jainkoa hil da,

gora panteismoa!

Arrazoia hil da,

gora Jainko birjaioa!

Aleluia gol anaiok

Aleluia anaiok amen.

XI

Dardarka dut eskua

loezin antsiolitikoak

nire baitatik irtetzeko nahiaren sentsazioa,

nire baitatik eztanda egiteko nahiaren sentsazioa.

Irratia,

prentsako izenburuak,

foroetako eztabaidak,

irainak,

amorrua,

doi doi ekarritako argudioak.

Irakurtzen ari naiz

eskale gaizki aterpetuak

plastikozko edalontzia eusten duen bitartean.

Eta zer drogatan gastatuko balu?

Dardarka dut eskua,

dardarka ahotsa,

dardarka hitzak teklatuan,

dardarka nire poemak,

hotz dago,

beroegia.

Gizadiaren parte naiz

eta gizadia hau da.

Ez,

ez dut beti indarrik izaten beren begiradetan argia ikusteko.

Ezin dut beti begiak bortxatu benetan imaginatu beharko nukeela

dirudiena antzemateko.

Jende ona bada, bai.

Jende ona egunero ankapetua.

Jende ona humiliatua

ikastetxeetan,

institutoetan,

unibertsitateetan,

lan-zaborretan,

bulegoetan

Jende ona badago

memeloen neurriko errealitatean atzitua.

Jende ona badago, bai,

baina gehienek beren alde iluna askatzen dute lasai

ez dutelako ankapetuak izan nahi,

ez dutelako humiliatuak izan nahi,

ez dutelako tratu txarrak jasan nahi.

Jende ona badago,

baina ezinduak dira

krudeltasun infinitoaren mundu honetan.

Jende ona badago,

baina ez dira gaituenak, hoberenak.

Eta Darwin Zerutik irrifartsu

Aitaren eskubian.

XII

Hau da paradisuarekin
amesten duen emakumea,
kredito entitateen
ate dizdiratsuetan
bere hezur nekatuak
marruskatzen dituen bitartean.

Hau da
“empresa pribatuaren xede bakarra
etekinak lortzea da” erakusiko dion
testu-liburua erosi ezin duen
ikaslea.

Zeren ezkerreko esku ikustezinari
inoiz ez zaio axola
eskuineko esku ikustezinak
egin ditzakeena.

Zeren zailagoa da gamelu batentzat
jostorratz bat heroimano bati saltzea
aberatsentzat Zeruetan txoko bat
erostea baino.

Oh, Ama.

Eskerrik asko. Ama.

Kontsumitzaileen gain

dirua botatzen duten

helizeen Erregina.

Zu

estadistikaren asepsia kriminala

eradoskitzen duzuna.

Zu

kalkuluaren magia

harrigarriaren Jainkotsa.

Oh, Ama.

Eskerrik asko. Ama.

Hori da behar genuen guztia,

eskerrik asko, Ama,

zibilizazioen suntsipenerako

aitzaki numeriko bat,

arratoi, haur, kakalardoen larruan

gure armak probatzeko

algoritmo logiko bat,

teoria zientifiko bat

laguntzen diguna, gauetan,

gaitasunik gabeko hilotzen gainean

lo egiten.

Hau da Camboyan dagoen fabrika.

Hauek dira Kongon dauden meatzeak.

Hau da hirietako arimetan

pilatzen ari den

zabor toxikoa

Hau da justuen ametsa

makina elikatuz.

Oh, Ama,

Eskerrik asko, Ama.

Hondakin industrialetan afaltzen duten

gorputz nimiñoen dantza hau

da bizitza

imajina daitekeen mundurik hoberenean.

Eskerrik asko, Ama.

Patera eta errefuxiatuen orgia hori

dezimal infinitoak dituen zatiketa baten

gainontzekoa soilik da.

Eskerrik asko, Ama.

Zu bizi eta erregina bait zara

aberastasun posibilitate arrazionalen

eta horien parte izateko aiduru aluzionogenoaren artean

Zu, zure semeak

Ospitaletan erditzen dituzuna,

Ama Ekonomia,

gau hotzetan

kutxa-automatikoetako

kartoien artean hil daitezen.

BIGARREN LIBURUKIA – LABEZOMORROAK

(Poema izan ezin duen zerbait)

5 zenbakira esleitua Babes Ofizialeko putzu eder hau

mundu guztia txaloka

txalo dezan mundu guztiak

9 zenbakira esleitua epe erosotan oradaintzeko kreditu inbidiagarri hau

mundu guztia txaloka

txalo dezan mundu guztiak

10 zenbakira esleitua dilista plater bikain hau

mundu guztia txaloka

txalo dezan mundu guztiak

non daude labezomorroak

beren zornea behar dugunean

non daude jakintsuak

non gerlariak

non dago arrazoia

non nago ni arrazioarekiko

3 zenbakira esleitua erabilera anitzeko labana

mundu guztia txaloka

txalo dezan mundu guztiak

36 zenbakira esleitua ankarik gabeko maniki hau

mundu guztia txaloka

txalo dezan mundu guztiak

Zein makinak diseinatu du egitura hau

zer arkitektura mota da hau

edozein zenbakiari esleitutako edozein motatako bizitza

esleituak izan diren gainontzeko guztien amorrua

sufri edo kunpli dezan bizitza horrekin

sugearen habitatetik agurtzen dut haurra

denok txaloka

txalo dezaten denok

homo oekonomikusaren habitatetik

agurtzen dut eskalea

denok txaloka

txalo dezaten denok

Teoria politikoak igortzen dizkidate, itxura emanez

ziur daudela urrutira eraman ahal izateaz.

eta beren begirada fidatuez fidatzen naiz

fidatzeari uzten dudan arte

aspertzen naizen arte

txistea antzematen dudan arte

baina ez naiz farrezka hasten

ez hasieran, behintzat,

gero bai

eta denok txaloka

eta azkenian ulertzen duzu txistea,

joder, kostatu zaizu

34 zenbakiari esleitutako panpin-etxea

txaloak txaloak

13 zenbakiari esleitutakoa eguberritako arbola

txaloak alaitasuna

txiroa da, badakizu?

orain arbol bat du babestu ahal izateko

segundo batzutan normalak direla usteko duten semeen

sardeskak eta anteajuetarako zorroak

(telebistako normaltasuna labezomorroen hain gustokoa den hori)

baina txalo txalo egin ezazue

orain da gladiadoreak bilusten diren unea

eta gudatan zizelkaturiko giharrak eta harea

elkarrekin nahasten dira

eta espasmoen artean zulatzen dute beren gorputzak

hau da izerdia eta atletismoa

hau da odola eta gizonkeria

hauek dira altzairuzko zakilak

marmorean zizelkaturiko ipurmasailak

hau da edertasuna

txalo ezazue

eraman semeak hau dena ikustera

itxi eizkiezue begiak ez dezaten zakilak ikus

(lizunkeria hutsa!)

baina borroka…

ah! borroka…

bere semeek baliotsi beharko lukete edertasun hori

txalo ezazue

erakutsi eiezue zuen kimuei txalotzen

gladiadoreak

azpiratuen odola okaztatzen duenean

gladiadoreak

zatikatuaren besoa altxatzen duenean

ez dago balentria handiagorik

makina irrifartsu dago

txaloak

123 zenbakiari esleitutakoa 10 kokaina gramo

txaloak

12 zenbakiari esleitutakoa 50 hachis gramo

txaloak

321 zenbakiari esleitutakoa 20 speed gramo

txaloak

Presente daudenetatik nork irakurri du Nietzsche?

10 opio gramo esleituak

Presente daudenetatik nork irakurri du Biblia?

10 ketamina gramo esleituak

txaloak

bizitza lehiaketa-programa bat da.

baina non daude labezomorroak

gehiegi ari dira atzeratatzen

gustagarriak zaizkigu labezomorroak erradioaktibitearekin ere

bizirauten dutelako

eta gu hasi gara jada uranioz usaitzen

(zertaz ari da tontolapiko hau idazten)

txaloak

ez dadila inor kanpoan gelditu

denok dena ulertzen dute

elertzeko asko ez badago ere

txaloak

ez zaitezte kanpoan gelditu

esan baietz

baietsi pozez-zoratzen

artistak sormen artistikoaz

jardun intelektual sakonaren

hesteetako gogoeta sakonaren bide bezala

hitzegiten dizuenean

txaloak

artista hutsa islatzeko gai izan da

koño!

Honek txalo are handiagoa merezi du

joder!

Oso zaila zen hori

txalo itzel bat eta akolitoak

eta imitatzaileak

eta dizipuluak

eta itzultzaileak

eta kaka

ez dakit

labezomorroak

Non daude labezomorro puto horiek

txalo ezazue

jenioak nobela bat idatzi bait du

nobela nola idatzi behar den azalduz

nobela idazteko ideia putorik izan gabe

metatxaloak

metatxaloak

Nork irakurri du Vila-Matas?

metadomina

nork irakurri du Faulkner?

sarien uhar inkontzientea

Esleitua Ulises-en edizio zoragarri bat,

polibeltza

eta politxinatar

eta polilatindarrezko polilarruan,

Molly Bloom guztiz ederraren

misterioen erraiak atera dituen zuritxoentat

txaloak

(eta amnesia eta dardara

eta izua eta magia)

ahots baten bila nabil

baina ekaitz bat aurkitzen dut

barka nazala

irakurle despistatuak

bilatzen ari zena

hautsa enamoratua balitz

baina edertasun guzti hura

makinak

irentsia izan zen

eta ez dut itxurak egin nahi

ez hemen

ez dut ihes egin nahi

ez honekin

Ez dakit zer dioten eskuliburuek

poemak izan behar duenari buruz

agian egongo da

bere mugak gainditzen

agian egongo da

bere hizkera zikintzen

baina zure ingurura begira ezazu

Amnesia hau eta dardara hau

izu hau eta magia hau

dira

poemak idazten dituztenak

Ez dira

nire asmakizuna

ez dira

nik erabakitako ezer

Hau bakarrik da

zentzugabekeria guzti honi emandako

sabel-erreakzio bat

(eta haatik)

noiz iritsiko dira labezomorroak

behar ditut labezomorroak

behar dut beren zornea

honenbesteko miseria edertzeko

txaloak txaloak

sarean bideoak

katutxoak

txitak

gizon zibilizatuaren harresien kontra

ankak lehertzen etorkinak

txaloa txaloa

alaitasuna

debate lehiaketak

deitu eta irabazi sukalde-bateria bikain bat.

deitu eta zure herriarentzat zine-festibal bikaina irabazi

Hollywood-eko izarrak

zure kalera etorriko dira

eta Erramun tabernan antxoak jango dituzte

eta anaitasun unibertsala delako hori ulertuko duzu

larru eta zeloak dituzten, hezur eta adizioz beteriko

idoloak miretsiz

txaloak txaloak izar handientzat

eta argazkiak

argazki asko

milioika argazki

argazkiz bete ezazu

zure bizitza kakaren

hutsunea

baina hau ez da poema bat

zein kaka mota da hau

nola izango da hau poema bat

hain zaila da egiatia izatea

hain zaila da mozorroa ahaztutzea

zein garesti ateratzen den

gure pertsonaiatik irtetzea

txistuak txistuak

ez du balio pertsonaiatik irtetzea

nor bere burua saltzen jakin behar da

joder!

erosalmentaren amaiera aldarrikatzeko

jakin behar da nor bere burua publizitatzea

joder!

publizitatearekin amaitzeko

ekoizpen-masiboa bihurtu behar da norbera

joder!

ekoizpen-masiboarekin amaitzeko

zatozte behingoz, labemozorroak

zuen zornea nahi dut nire ezpainen ertzetan

giza-zapore honek kutsatzen bait nau

giza-zapore honek usteltzen bait dizkit hitzak

txaloak

oraindik hil ez den poeta bat da hau

edo hilda nagoelarik ari zara hau irakurtzen

ez du inportik

txalo ezazu

imajina nazazu pijamaz jantzia

mozkorra erretzen

bihotza eskuan

tekladua zikintzen

nire kontraesan guztiak eta bakoitza

negarrez deitoratzen

nire ezpurutasunagatik negarrez

garbitasuna zerbait lorgarri balitz bezala

garbitasuna erdiestea zerbait duina balitz bezala

eta txalo ezazu

joder!

ezer ez da errealagorik

oh, baina atzo ikusi zenuen

zilipurdiak egiten zituen txakurtxoaren peli hori

eta hain zen polita

eta misterioak argitzen zituen

bon, ez dut zer eginik txakur horren kontra

naturaren miraria bait da

txaloak

txakurtxoarentzat

eta baldin banaiz ni labemozorroa

eta idazten dudan hau zornea

eta zuek

aharrautsika

hau irakurtzen ari zaretenok

poetak

edo agian hau abesti bat da

nork daki zein den

abesti eta poemaren arteko diferentzia?

pop musikari

eta marka erraldoien bussinessari

eta larru iluneko beste haurrek sexualizaturiko arropa estridenteari

beren ipurditxo birijinak irekitzen dizkieten

haur drogatuentzako abestia,

hamburgesaz eta zakil helduez

gurasoen

ikastetxearen

telebistaren

zinemaren

errealitatea baino haratagoko errealitateaz

bortxaturiko haurrentzako abestia

Mendebaldean

guraso erotuek

erlijio fetitxistek

izen zehatzik ez duten gerrek

asesinaturiko haurrentzat abestia

haur gaixotuentzat abestia

haur elbarrituentzat abestia

giza krudeltasunari oda

Beraren irudira eta antzara.

zeren ikusi ditut nire belaunaldiko adimen hoberenak

(kia, kia

nik ez dut ezer ikusi)

txaloak txaloak

nik ez dakit ezer

ezertaz absolutoki

eta hau poema bat bada

erabaki dezatela irakurleek

kritikoek

eta zilipurdika ibiltzen diren

eta misterioak konpontzen dituzten txakurrek

joder

hain politak dira txakur horiek

bai, badakit

hitzegiten dizut diodana zerbait inportatuko balitzaizuke bezala

hitzegiten dizut suposatuz badakizula ni irakurtzen

nik ulertua izateko

esfortzurik egin gabe

hitzegiten dizut ezagutuko bazintudan bezala

baina, izan ere, ba al dakizu?

ezagutzen zaitut

ez dago horrenbeste aldagairik

esan dezagun

aurresaten duzula

gertatuko dena

eta ahaztu egiten duzula

gertatzen ari dena

edota

emozionatzen zara

besteen historioekin

eta ahaztu egiten dituzu

bazarela

ibiltzen zarela

sentitzen duzula

edota

zure ardura da

ibiltzen zarela

existitzen zarela

sentitzen duzula

eta ahaztu egiten duzu

besteen partea ere osatzen duzula

neurri handi batean

horiek ere zu direla

“zu” hori existitzen dela

besteak existitzen direlako

edota

maitatzen duzu

gehiegi ez maitatzearen

erosotasunean

eta iratzartzen zarenean

gorrotatzen duzun guztia

zara

edota

zure fedea besteengan jartzen duzu

eta ahazten duzu

zu ere benetan bazarela

edota

zu bakarrik zara ziur

eta mundua galtzen duzu

edota

konorte galdu arte edaten duzu

eta ezagutzen dituzu

eskuragarri diren ansiolitikoen

marka guztiak

edota

kirola egiten duzu

zure arima

izkutatzen duen

gorputz bat eraikitzen duzu

edota

sufritzen duzu sufritzen ari zarela onartu gabe

edota

aurreko horretatik ezer

inoiz

zer dakit nik

nola ezagutuko zaitut!

Baina

noizbait gertatu al zaizu

desiatzen duzula ez duzuna

baduzula desio ez duzuna

balioesten duzula ihes egiten dizuna

botaka zabiltzala gelditzen denaren gain

izutzen zaituela beldurrak

eta bigarren pertsonan idatzitako poemak

bizitzak

aisialdiak

okupazioak

unibertsoari begira zaude

egi bat aurkitu nahian

zure barnera begira zaude

unibertsoaren bila

lerro zuzenean galdu egiten zara

bideak zeharkatzen dituzu sigi-sagan

gorroto dituzu filmak

maite dituzu filmak

negarrez ari zara aurkitzen ez duzulako

galtzerdi garbi batzuk

denak erortzear dirudi zure inguruan

itsu zarelako zutik dirauen horrekiko

nor zara

zer egiten duzu

zerk ezaugarritzen zaitu

definizioetatik ihes egiten duzu

amodioa baino gehiago behar dituzu horiek

zugandik ihes zabiltza

baina beti aurkitzen zara

zure iraganatik ihesi

baina zu zara

etorkizunean proiektatzen zara

baina etorkizunik ez da

edan

erre

farmazia erregularki bisitatu

besteengandik ihesi

eta besteak behar dituzu

ispiluak ez dira inoiz hausten

puska eginak ikusteko premia duzunean

eta idazten duzu

idazten

idazten

drogek ez bait dute mina arintzen

ezta horien ausentziaren desesperazioa

baina zer moduz zaude

galdetzen dizute

ondo, ondo, dena ondo

hitzek erretzen dute

hitzek kraskatzen zaituzte

begiradek zugan bilatzen dute

eman ezin duzun zerbait

eman nahi duzun zerbait

eman nahi ez duzun zerbait

emateak mina ematen duelako

korrika zoaz

geldi geratzen zara

berriro korrika

irri egin

amets egin

amets gaiztoak izan

Diazepana

Trankimazina

Orfidala

musika tristea

metal musika

hizkuntzak ikasi

filosofiak estudiatu

nobelak irakurri

poema liburutan zure bila zabiltza

ikusten (erabiltzen) duzu pornografía

jan

oka egin

berriro jaten duzu

baino, zer moduz zaude

ondo, ondo, dena ondo

non ustelduko zaren lekuaren bila zabiltza

baina ez zara usteltzen

norekin larrutan egin horren bila zabiltza

baina bere bularrean negarretan zaude

ihes zoaz

baina ez duzu ihes egin nahi

gelditzen zara

baina ez duzu gelditu nahi

minez zaude

baina kakaz betea zaude

autolaguntzako liburuxkaz asetua

lagundu nahi zaituzten pertsonez asetua

baina ez dizute lagundu nahi

eta proiektatzen dute

eta proiektatzen duzu

eta lagun deitzen diezu

eta maite dituzu

eta horien premia duzu

baina haiengandik ihes egiten duzu

nahiz eta haiengandik ez duzun ihes egin nahi

haiengandik ihesi joatea behar duzulako

ispilu hautsiak dira

baina ez dituzu ispilu hautsirik nahi

ispilu perfektuak dira

baina ispilu perfektoek itsutzen zaituzte

eta idazten duzu

idazten

idazten

eta ez baduzu farmazia garaiz bisitatu

egunsentiratzen ari da idazten jarraitzen duzun bitartean

altxatzen zara bizkarreko mina duzulako

burua biraka duzulako

zure begietako erreka gazia

lehortu delako

eta eskola-ikasleak

oihuka ari direlako

eta musika beldurgarri bat

kontzentrazio-eremuetako musika bat

ikasmahaietara deika ari delako

ohe deseginari begira zaude

masturbatzen zara

Interneten nabigatzen

ito egiten zara

eta idazten duzu

idazten

idazten

baina nori

zer

norentzat

zertarako

aingeru suntsitzailea zara

baina askoz gutxiago poetikoa

askoz gutxiago aingerua

nahiko gutxiago behin betiko

zigarrokina zanpatua zara

kutsatzen duzu

zikintzen

kirats hutsa zara

errealitate honetan

hain panoptiko nola itsu

aingeru suntsitzailez betea

mantso eta ohargabeki

suntsitzaileak diren aingeruz betea

ireki dute jada farmazia

eta errezeta bat duzu

ez duzu zugandik ihes egin nahi

baina zutaz atsedena behar duzu

eta zer moduz zauden

galdetzen dizute

baina zu jadanik

beste zerbaitetan

pentsatzen al zaude?

farra egin nirekin

ahaztu

zaurgarriak zaretela ere

zein zaila den egiatia izatea

zein zaila gauza batzuk esatea

hain irrigarriak

zentzuren bat

asmatu behar izaten dugula

hain patetikoak

behar dugula

gure nortasun bat eraiki

hain galduak

besteei eskatzen diegula

defini gaitzaten

eta hori egiteagatik

gorrotatzen ditugu.

hain hustuak

ezerk ez digula betetzen

hain txiro

hain erpai

hain ziurgabeak

elizetan

horoskopoetan

ospetsuetan

ideia absolutuetan

poesian

aurkitzen dugula ziurtasuna

hain izutuak

hain hautsiak

ez ez

hau ezin da poema bat izan

hiztegiak esaten bait du

poema dela “lan poetikoa

bertsotan”

eta poetika

“poesiari burukoa edo eremu horretakoa”

eta poesia da

“edertasunaren agerpena

edo sentimendu estetikoarena

bertsotan edo prosan,

hitzen bidez”

eta definizio horietako bat berak ere

ez du erretzen

definizio horietako bat bera ere

ez da sutan jartzen

hau beste zerbait behar du izan

ezin dut kartzela horretan idatzi

barka nazala

irakurle despistatuak

hauts enamoratua aurkitzea

espero ba zuen

ez ez

hobe zilipurdika dabilen

txakurtxo horri imitatzea

hain dira politak

misterioak ebazten duten txakurtxo horiek

txorakeriak egiten dituzten katutxo horiek

zoriontsu farrez ari diren tximinotxo horiek

(VIH eta hepatitisaz

kutsatu dute

eta agian gorputz-adarren bat amputatu diete

eta beste nonbaiten josi

baina tira

ez zaitezte txikikeritan galdu

behintzat ez dira judeuak edo buhameak, ez?

gizartea aurrerapen bidean dago).

Zein politak diren denak

Irrifarra tristea duen tximinotxoari esleitua genetikoki aldaturiko birus bat

Arratoitxo pinpirinari esleitua giza-belarriaren inplante bat

Untxi jauzkariari esleitua froga kosmetiko bat

(zein polita ematen du

Jainkoarren

froga kosmetiko bat

inork ez luke esango begiak

ekoizkin urragarriz bustitzera doaztela)

txaloak txaloak

mudua aurrerapenean doa

mundua ibilgailu erraldoia da

eta gu erregaia

baliotsuak gara

merkatuak agindutako

ia edozein gauzatarako

esaten du idazle-txakurtxo-zilipurdika-ibiltzen-denak

gure gorputzaren gantzarekin

xaboia egin daitekeela

eta beste giza-erregai-fosilak

osagarri erabilgarrietan deskonposatu dezaketen bonbak

bizitzaren zikloa da

hiltzen gara beste batzuk bizi daitezen

eta azken hauek hil beharko diren beste batzurentzat,

erregai fosila gisa baliagarriak izan daitezen

eta edertasun guzti hau sar genezake

xiringa batean

eta amodioa, pakea eta anaitasuna

zainetan zuzenean jaso

efektua ia berehalakoa da

edo uste al duzu zure ateismoak

erlijiotik libratzen zaituela?

edo uste al duzu zure pentsamendu kritikoak

ergeltasunatik libratzen zaituela?

edo uste al duzu zure irakurketak

ezagutza-ezaz libratzen zaituela?

ez du ematen

ez du inolaz ere holakoa denik ematen

nahi duzun haina egizu negar

edo ziurtasunak asma ezazu

gaztelu bat eraiki

proposizio logikoetatik abiaturik

eta isolatua bizi

autoezarritako

koherentziaren dorrean

goialdetik zelatatu herri xumea

hain zikina

hain informaziogabetua

eta ekidin ispiluak

nagusitasun moral guzti hori har dezakezu

xiringa batean sartu

eta zuzenean zainetan xiringatu

efektua ia berehalakoa da

HIRUGARREN LIBURUKIA

SCHRÖDINGER

Egi guztiek

garai guztiek,

errakuntza guztiek,

begirada guztiek

begirada honetara eraman gintuzten

Adiskidantza guztiak,

odola guztia,

amets guztiak

izan dira noizbait

gure ametsa

Muxu bakoitza,

martirio bakoitza,

sexu bakoitza,

tiro bakoitza

izan dira noizbait

gure tiroa.

Gure historia kontatzen duen

liburuaren nonbaiten,

gure izena dago,

izen guztien ondoan,

konkista eta bortxakeria guztien ondoan

eta heroi guztien ondoan

eta munstro guztien ondoan,

teoria guztien ondoan

eta bonba guztien ondoan.

Osotasun baten

parte gara

ezerezten ari dena

eta haatik hazten dena.

Osotasun baten

parte gara

ustegabeki identikoak diren

indibidualitate infinitoez

osatua.

Idatzia daramagu

gure ukimenean

diktadore guztien izena,

asesino guztiena,

biktima guztiena,

memelo guztiena,

ergel guztiena,

beraien ahotsez desberdinak garela

ohiukatzen dugun bitartean.

Aurkitu egiten dugu

behin eta berriz

su bera

eta su horren gainean gauero egiten dugu lo

gu geu harritzen garelarik,

behin eta berriz,

erretzen ari garelako.

II

Amestu dut

milioi bat emakume erahilak

munduko hizkuntza guztietan

hitzegiten zutenak

eta aberritzat

bandera guztiak

eta eresi guztiak

zeukatenak

gerra guztiak baina areago

hunkitzen zutenak,

zeren gerra batek ere

mugak ditu.

Baina larruazal ireki honek

eta hezur kraskatu honek

badirudi daukatela

Unibertsoaren adina.

Eta amestu dut

Schrodingerren ametsa

nere eskuetan,

aldi berean zeudela

garbiak

eta odolez beteak

Gizatiarra bait naiz

heroi guztiak bezala,

munstro guztiak bezala.

DISIDENTZIAREN APOKALIPSIA

Ez dakit zer nolako mundu motan
ari naizen amiltzen,
zer nolako hutsune motan
itotzen ari naizen,
baina itotzen ari naiz.

eta nire heriotz-ohean
neongo argiak soilik ikus ditzaket
eta eslogan ohiutzarrak
eta pantaila keinukariak
nire neure itomenaren areagotzea babestuz.

Ez dakit zer nolako mundu klasetan
ari naizen niri birikak ttuka
zer nolako munduan
bere miseriaren pisuz erortzen
ari zaidan larrua urratzen.

Begirada iluneko hegaztiak hegan dakust
eta txirula-musika bat
desfilatzen ari diren
historiaren arratoiak
hipnotizatzen duena.

Baina ez da nire begitarako espektakulua.

Mamutzar bat naiz.

Ez naiz.

Gizadiaren gainontzekoa ez den bezala.

Bakarrik arratoi hauek

eta xirula musika hau.

Baina zein melodia da hori?

Iragarki publizitario bat?

Mitin politiko bat?

Igogailuaren azken solairura

iristearen zai,

dentistak azken agina ken diezagula zai,

zientzia medikuak

gure ahaide maiteak heriotzatik salba ditzan zai,

gauden bitarteko hari musikala al da?

Musika bat entzuten dut

autoafirmazio airekoa

autokonplazentzia airekoa

kirtenkeria airekoa.

Eta arratoiei hazi zaizkie hegalak

eta tronpeta jotzen dute

lehen zigilua irekiko dela iragarriz:

hirugarren munduko herrialde txiro batean

luxuzko resort batean oporrak.

Eta orain arratoiak imirrimaua bihurtzen dira

eta beste tronpeta jotzen dute

eta bigarren zigilua irekitzen da:

Carrefour markako eskuohial joku bat.

Eta orain imirrimauak

gerra-kontseilua bihurtzen dira

eta korneta bat entzuten da

eta hirugarren zigilua irekitzen da:

zazpi urteko kartzela zigorra

erotismoaren apologia egiteagatik

Eta gerra-konseiluak bihurtzen dira konpresak

eta larogeigarrengo sintetizadore ukitu bat entzuten da

eta bostgarren zigilua irekitzen da:

eta komertzio librearen ituna da.

eta aleluia entzuten da

eta hosana zeruan

eta oh-igela bat

urmaeletan

Eta itsasotik, hamar euro eta zazpi kondena zituen

hilotza bat irtetzen ikusi nuen,

eta bere zenbakia

giza-zenbakia zen

eta bere argazkia,

aurrez-aurretik eta perfiletik

bazirudien ziola

ni izan naiz,

aitortzen dut

Saiatu naiz mundu bat imaginatzen

non itomenerako lekurik ez dagoen,

saiatu naiz mundu bat imaginatzen

zeinean arnasa har zitekeen

bularreko min zorrotz hori gabe,

baina ez da posible izan,

aitortzen dut.

Ez dut asmatu nire burua

labirintotik kanpo ikusten.

Ez dut asmatu nire burua

jokuz kanpo ikusten.

NIRE ETSAIA DEABRUA BADA

Galdetzen diot nire buruari

Ea deabrua nire etsaia den.

Ea bera den iluntasuna

eta ni argia.

Ea bera profetek aldarrikaturiko

gaitza den.

Ea nire eginbeharra den beraren aurka borrokatzea.

Ea nire etsaia oraintxe bertan

poema bat idazten ari den

nire iluntasunaren aurrez aurre

argia delakoan ziur,

profetek aldarrikaturiko gaitza

ni naizelakoan ziur.

Ea oraintxe bertan nire etsaia

nire kontra borrokatzeko eginbeharraz ziur dagoen.

DONOSTIA 2016.

Arropa zahar eta zikinez jantzia txakur zahar eta zikin bati besarkatua,

yonkiak eta arloteak jasatzeaz nekaturiko

banku baten ordu hildakotan.

Arropa aratz eta merkearekin paseoan dabiltzaten Señorak

behatz txikiena sudurrean sartuz

beren gauzetan pentsatuz, agian, edota

beraienak ez diren

baina beretzat hartzen duten gauzetan.

Turista bilohori eta aski orraztuak saiatzen dira beren artean elkarri zirrara

sorrarazten

elkarrekin kalakan hirien onuraren oinordeko legitimoak bait liran

Agureak elkarri agur esaten portaletako atarietan

bihar arte esanez

baina galde ikurraren bat erortzen da lurrera.

Hiritarrak bere kotxeetan leratsuak aparkaleku eta zeruko manaren bila

skateboarden doazten gaztek jarraituak, itxura denez,

kotxearen hagunak miresturik.

Emakume bat pasa da eta irrifarra eskeintzen dit,

agian ezagunak gara,

agian bere buruari luzatzen dio irrifarra,

agian irratia entzuten ari da.

Gizon bat etengabeki eseria,

etengabeki mozkorra

beste bati esaten dio alaitasun-itxura eginez: ba al dakizu gaur nire

urtebetetzea dela?

baina besteak ez dio entzuten, neska gazte batzuk kantatzen ari bait dira

musika bat (gutxi gora behera) espirituala

zeharka haragizko pekaturen bat ikusten uzten duena (gutxi gora behera).

Hiriaren nonbaiten, gaur, badago kontzerturik, hitzaldirik eta

arropa dotorerik

baina hain dut gogoko bizikletaz kale hauetan zehar ibiltzea.

Gustokoa dut semaforo gorritan gelditzea eta BMWen lepoan

zain pilpilariak ikustea,

FNACen atean, zure kontzientzia sinadura batez edo 10-20 euroko bilete

batez garbitzea eskeiniz egoten diren grabitaterik gabeko izakien begietara

zuzen begiratzea,

itomen larrien mugan hutsera jauzi egitearen edota hertsatzaile bihurtzearen

arten ezbaian dabiltzaten korbatak.

Esan dezaket zein partiduri ematen dioten botoa nire herrikideak.

Daramaten kamisetan eta zapatetan ikusten dut.

Buruz esan ditzaket berrogeitahamar marka komertzialen izenak,

berrogeitahamar musika-talde euskaldunen izenak.

Batzuk oraintxe bertan ari dira kalean jotzen,

Bertsioak, uste dut.

Ederra da era izugarrian

Gogora dezaket behin nire irudia alokatu nuela Aurrezki Kutxa baten

publizitate kanpaina baterako

(baina, nolatan egin zenuen hori? Zer demonio ari zinen pentsatzen?)

200 euro,

horrela, merke

Jolas dezaket gorentasun moralera

baina zahartzen ari naiz

eta ez naiz horren trebe

eta baita hau ere ederra da

izugarri kutrea denez.

Mundua suntsitzearekin amets egiten dut,

baina ez dakit nola amestu

berreraikuntza.

Arratoiak, imirrimauak

erleak, labezomorroak

paper bat jokatzen dute

egitasmo bat dute.

Zebra-bidetik oinak arrastaka daramazkin amona hau

Juana Arkuduna izan zitekeen,

baina orain 5 zentimo kobratu diote

Eroskiko poltsa bakoitzeko.

Aintza, joku pribatu bat da.

Inongo harrari ez zitzaion inportik Agamenon

ezta bere txerri-zaintzailea.

Dirudienez, anatomikoki hitzeginez,

ez dago alde handirik giza-bihotz baten

eta txerri-bihotz baten artean.

Quod erat demostrandum.

AKROSTIKOA

Ez dakit nor naizen.

Oscar marka komertzial bat baizik ez da.

Suge tengarria promesten duena

autodefinizioz estasia

egia prometatzen duena,

erabilgarritasun praktikoa,

indibidualitate ilusioa

bizitzari buruzko fikzioaren arrakasta,

zirkunstantzien ukazioa.

Banaiz eta ez naiz erreala

munduko biztanle organiko,

ni da nire deabruei deitzeko modua

Baina pilatzen ditut minutuak eta urteak,

bizitza batengan sinistarazten nauten esperientziak,

itxurazko arrazionaltasuna,

behaketa interesatua.

Ekiten dut izango banintz bezala,

existituko eta egintzat emana banintz bezala.

Zientziaren izen ona lapurtzen dut,

liburu jakintsuen artean lantzen ari naiz

nire existentzia gezurtatzeko plana.

Leoia labirintoan.

Hienaren oportunismoa.

Nire ebangelio propioa idazten dut,

gurutzeak karraskatzen dituen xilofagoa.

Baina ez ditut diszipulurik,

so-egilerik ezta apostolurik.

Hitz batzuk biltzen ditut,

poemen itxura imitatzen dut,

bere burua gainditu nahi duen izaki baten mailara iritsi nahi dut.

Jaio.

Hazi.

Nire ziurtasunak sutaratzen ditut.

Akrostiko patetikoa.

Jokuaren plantak egin,

inolaz ere jokua ez dena,

poema baden eta ez dena.

Hutsaz betetzen naiz.

Nire arrandiaren gain ttu egiten dut.

Lurra oinordetzan jasoko duzu,

Nekazari despistatua:

lurralde eremuak,

dohatsutasunaren elipsia.

Ezin zara orain akitu.

Landetako liliekin aldera zaitez.

Urezta zaitez ur arre honekin,

beherengoarekiko amodio hau,

zure zaurien zapore metaliko hau.

Urezta zaitez siniskerien mendi honekin.

Egun honetan hil zen aita,

jaio zen zientzia.

Berriro ere, errepika nerekin:

Logos-a jaio zen,

sinismena erre egin zen

Biziko zara ikusteko nola

hautsak erretzen dituen

zure lurrak jadanik sutan.

Zure bizitza,

bizitza aseptiko, hutsal eta betierekoaren alde

emango duzu.

IZENEZ ETA HARRIEZ I

Suposatzen duzu erantzun guztiak
egiaz ulertzen duzun horrekin
bat etorri behar direla,

bizitza guztiak
bizitza kontsideratzen duzun horren
itxura behar dutela izan,

nota guztiak
jadanik aldez aurretik finkatu duzun
lekuan
entzun behar direla.

Aurresuposatzen duzu
denetan arrazoi duzula,
bestela
zure dorrea amilduko zen.

Lokatz eta aurreiritziz altxaturiko
egitura hain da altua
oxigeno faltan ari zarela gelditzen,

eta desjabetze eta itomenezko
zure mozkorraldian
ikusten duzu jainkoen ondoan
zure izen idatzia.

Hain jakintsua izaki eta haatik
oraindik ez duzu ulertzen
zer inplikatzen duen zure izena
harri batean zizelkatua ikustea

IZENEZ ETA HARRIEZ II

Farandulako jendeak esango du

dena antzerkia dela.

Politikoak

dena politika dela.

Matematikoak

dena zenbakiak direla.

Poesiak badaki

dena hitzak direla.

Argazkiak

dena argi eta angelua dela.

Musikak notak ikusten ditu

behatzen artean hazten.

Kimikak bilatzen du

jainkoek ehotzeko erabiltzen duten materia.

Marxismoak bere teoria ezeztatua dakus

ipurtargien argi harrigarrian.

Kreazionismoak

hodeien irudi arrarotan.

Liberalismoak

igandeko horoskopoetan.

Agian hor inoiz izan ez zen

haize baten

itzalaren itzala da

dugun guztia.

Agian ez da hain eroa

eroak inbidiatzea

beti bait dirudite

denetaz hain konbentzituak.

IZENEZ ETA HARRIEZ III

Hau da mundua
efizientziaz egituratua
ez dadin amildu,
ez gaitezen amildegian erori

Hauek dira jazoerak,
jazoerak osatzen duten
egiak eta hitzak.

Hauek dira errealitatearen
trenkada tinkoak

eta hauek gara gu
itxumustuan katamarraukan,
hitz eta doktrinen
harresi itzelek
ez bait dute argia pasatzen uzten.

Eta gurari bat badago
Josuek trompeta jo dezan
eta Jeriko kolpasa dadin.

Eguzkiaren antsia bat dago
Eta betiereko askatasunarena,

eta beldur izugarria

harresia eroriko ez ote den

eta babesik gabeko gau izoztuan

hotzez akabatuko ote garen,

beldur ikaragarria

eguzkiaren argiz itsu geldituko ote garen,

beldurra, agian ulergarria,

mugarik gabeko loezinari.

Jeriko eroriko da

Baina haren errautsen gainean Jerusalen eraikiko dugu.

Jerusalen eroriko da

baina haren errautsen gainean mundu berri bat eraikiko dugu

Mundu berria eroriko da

baina ez dira faltako armetan altxatuko direnak

harresien artean bizitzeko

duten eskubidea defendatzeko.

AITA HIL

Onartzen dut badagoela nigan
promesak egin eta bete ezin dituen
munduarekin sumindua dagoen
haurraren puska dexentea,

behin segurtzat, egonkor, justu,
maitakor (hitzaren bere lehen esanahaiean:
maitatua izateko duina)
aurkeztu zitzaion munduarekin hasarretua.

Baina haurra hazi egin zen
eta begiak ireki zituen
munduak irekitzea nahi izango lukeen
baino gehiago,

eta orain ukabilka dabil pareten kontra
eta iragazkirik gabe esaten ditu gauzak,
izutua dagoela ez onartzearren
hasarretzen den nerabea bezala

Eta aita labanaz hil egin nahi du,
Odol-festa bat,
Suzko bataioa.

Eta aihotz bat erosteaekin amets egiten du
bere gezur guztiak

banan bana

sorbatzarekin txikitzeko.

Zeren haurrak amodioa soilik ikusten zuen hartan

orain hipokresia baizik ez du ikusten

eta soilik erantzun arrazoitsuak zeuden hartan

orain errautsa baizik ez dago,

eta jadanik aitarekin soilik hitzegin dezake

hortzen artean sorbatz hori eusten duelarik.

Baina badaki,

barne barnean badaki,

ez duela inoiz marra hori igaroko.

Aitaren heriotza dela

ezagutu duen guztiaren

heriotza,

bere itzalak direla

berak argia deitu duen oro,

eta bere azken hatsaren une izugarria

iristen danean

bere heriotzaren ohearen eskubian

eseriko dela

eta bere burua ere gorrotatuko du

bere masailan behera

malko bat ihesi sentitzeagatik.

KONPROMEZUA

Hamar kale zeharkatu ditut gaur goizean

ametsak bidaiatzen duen latinaren lo-ibiltari,

eta bere gorentasun moralarekin engaiaturiko

hainbat sortzaileen

poema bat, abesti bi,

hiru argazki eta laburmetraia baten

gaia izan naiz.

Sortzaileak,

lotan ibiltzen eta ezer ulertzen ez duen,

ez bilatu eta ez aurkitu eta ezta ere

hain erabateko artista inoiz izango ez den

jendetzaren aurrez aurre.

Eta ispiluari esker ona eman diot ni neu azaldu-arazi nauelako

hirutan memelo:

bat

jendetza loak hartua izateagatik

bi

artista arroputza izateagatik

hiru

poema honengatik,

duen pretentsioa bait da zuei/niri sinistaraztea

jokuz kanpo nagoela

KAIKUAREN BLUES-A

Kapelu bat zeraman berak
New York City inizialekin eta pentsatzen ari zen
auskalo zein neskaz, zein mutilaz.
Nik lanean nengoela itxurak egiten eta berak
entzuten ninduela itxuratzen, hura dena benetan
gertatzen arituko balitz bezala.
Komunikazioa, igorlea, mezua,
kodigoa, hartzailea prest
martxan zegoen ekuazio osorako. Baina berak amesten zuen
auskalo zein neskaz edo zein mutilaz,
eta nik Angelica Lidellekin aizkora batez
txiki txiki egiten ninduela. Oraindik zurrutadaka zebilen
Manuel Vilas-ekin zurrutada bat hartzearekin.

Ohiko egun bat zen eskolan
memeloen munduan. Baina gauzak benetan
gertatzen diren munduan, benetan garrantzitsuak diren gauzak
gertatzen diren munduan,
mutil hark agian amesten zuen
beste amets batean parte hartzearekin,
New York City eta bere zabor zinematografiko guztian,
mutil hura eta ni ez ginen han. Adimen gutxieneko inork ez luke
horrelakorik esango.
Baina kaikuen munduan…
kaikuen munduan izurratuta geunden.

HAU ARBOL BAT DA

Guzti honi zentzu bat eman nahi diogu,

errelato bat osatu,

baina zer da lirdinga epel hau,

larrua lazten due ukitze arin hau,

malkoetara eramaten gaituena?

Zer da gaua?

Zer da isiltasuna?

Hitzak jarri genizkiegu guzti honi,

orden bat ezarri,

denok inkariotu begiak itxita.

Egin ahal dugu.

Aurkakoa, ezpaina ekintza bat dela onartzea da,

ilargia gihar bat dela.

Aurkakoa da koloreak existitzen ez direla onartzea,

ez direla existitzen

mugak ukitzen eta ulertzen duten begiak,

haztatu eta esan egiten dutenak: hau arbola da.

Lasai dadila zure bihotz zoratua,

hau arbola da, hura kattagorria da

eta hortzen artean daramana giza-hezur bat.

Lasai dadila zure bihotza,

heriotza ere erreala da

eta ez kontzeptu hutsa.

Zentzu bat eman nahi diogu guzti honi

aurkakoa bait da onartzea

ez dagoela gure existentzia ziurtatzen duen matematikarik,

aurkako da onartzea, ze, agian, gure etsaia

ez dagoela oker,

ze, agian, gure etsaiak,

hezur eta kartilogoz gizatiarra, ente deabrutua,

agian arrazoia izan dezakeela.

Baina ez, gure etsaiak beti oker egon behar du,

gure egunkariak benetako egunkariak dira,

gure irratiak benetako irratiak,

zeren, bestela, aurkakoa da onartzea

atomoa ez dugula ulertzen

ez dugula euria ulertzen,

ezta gure seme-alaben beharrak.

Lasai dadila zure bihotz zoratua,

hau arbola da,

hura kanposantu bat,

haragia usteltzen da lehenago,

eguzkia Ekialdetik irtetzen da,

loreek pizatzen dute zoladura.

Lasai dadila zure antsietatea,

mundua badabil ere alderantziz,

heroiak dira munstroak,

munstroak beti aurkarien bandokoak.

LAUGARREN LIBURUKIA – BERE IRUDI ETA ANTZARA

(Quote Jockey set)

TRACK 1

Bere buruaz beste egiten saiatzen den pertsona “psikotikoki deprimitua” izendatuak, ez du hori egiten “esperantza falta”-gatik, ezta bizitzaren zorrak eta hartzekoak ez dutelako koadratzen. Eta, dudarik ez ere, ez du holakorik egiten heriotza, bapatean, liluragarria iruditzen zaiolako. Pertsona batengan Huraren sinistezineko agonia maila jasanezin batera igotzen denean, bere buruaz beste egingo du, momentu batean sugarretatik ihes egiteko jauzi egingo duen atzitua dagoen pertsona bezala. Ez dadila zalantzarik izan amildegira jauzi egiten duten pertsonei buruz. Horren altura handitik jauzi egitearen aurrean duen izua, lehio horretatik paisaia ikusten ari denak sentituko lukeena bezain handia da; hau da, erortzeko beldurra konstante bat da. Aldagarria dena da beste izua, sutearen sugarrak: sugarrak aski hurbiltzen direnean, hutsara jauzi egitea beste izua baino arintki txikiagoa da. Ez dago inolako erortzeko desiorik; sugarrekiko izua da. Eta, haatik, espaloian begira eta ez dezala jauzirik egin, eusteko, oihuka ari direnetako inork ezin du jauzia ulertu. Benetan, ez. Egon beharra dago pertsonalki sugarretan atzitua, ulertu ahal izateko bene benetan izu hori, askoz handiagoa dela erortzearen izua baino.

David Foster Wallace. Txantxa infinitoa

Manuel Gomez Beneyto (Psikiatriako Komisio Nazionalaren presidentea): “Suizidioa eta etxegabetzearen arteko erlazioa begibistakoa da”

Lorena Ferro. Lavanguardia.com

Globalki, norbanakoak ezin du bere saldoa “gastatu”, transferitu soilik baizik. Batek gastatu dezake irabazten duena baino gehiago beste bati induzituz gastatzen duena baino gehiago sar dezan. Errealitatean, aulkitxoen jokoan egongo bagina bezelakoa da”

Milton Friedman. Diruaren paradoxak.

TRACK 2

Estatu Batuek esklabotzari ematen zioten babesaren oinarrian gertaera praktiko ukaezina zegoen. 1790ean, Hegoaldeak ekoizten zituen mila tona algodoi urtero. 1860ean, xifra hori milioi bat tona izatera iritsi zen. Aldi berean 500.000 esklabu izatetik 4 milioi izatera igaro zen. Sistemak, esklabuen oldarraldiekin eta konspirazioekin urratua […] hegoaldeko estatuetan kontrol-sare bat garatu zuen, legeen, epaitegien, indar armatuen et nazioaren lider politikoen arraza-aurreiritzietan babestua.

Howard Zinn. Estatu Batuetako beste historia.

Amnistiak sinadurak biltzen ditu Applek argitu dezan ea bere ekoizpenek baduten haurrek erauzitako kobaltorik.

Servimedia. Elmundo.es

Ekonomiak kontsideratzen du gizakia egoista dela.

Leopoldo Abadia. Nola funtzionatzen duen ekonomia inozoentzat

TRACK 3

Diruaren botereaz eratutako gizarte batean, langile jendea miserian murgildua mantentzen duen gizarte batean, dirudun gutxi batzuk soilik bizkarroiak izaten asmatzen duten bitartean, ezin da benetako askatasun iraunkorrik egon.

Lenin-ena dela uste da

Oh Stalin handia

Oh herrien buruzagia

Zu gizakia jaio-arazten duzun hori

Zu lurra ernaltzen duzun hori

Zu mendeak gaztetuarazten duzun hori

Zu udaberria loratzen duzun hori

Zu musikaren hariak bibrarazten duzun hori

Zu, nire udaberriaren dizdira

Zu, milaka bihotzetan islatua zaren eguzki hori

Rakhimov, Pravda, 1936ko abuztuaren 25

Polizia Sekretu sobietarra (GPU, OGPU, NKVD) Atxilotze eta epaiak, 1921-39

Atxilotzeak orotara (1939ko datu batzuen faltan) 4.752.337

Krimen kontrairaultzaileengatik: 3.341.989

Sobieten aurkako agitazioagatik: 597.786

Bestelakoak: 1.493.948

Kondenak: 2.944.879

Exekuzioak: 747.772

Kontzentrazio-eremuak eta kartzelak: 1.687.172

Exiliatuak: 373.657

Bestelakoak: 200.567

Kalkulua egin da J. Arch Getty eta Oleg V. Naumov-en

The road to terror –etik abiatuta.

Horiek , iturri gisa, aipatzen dute Gousudarstvennyi arkhiv Rossisskoi Ferderatsii (GARF) f. 9401, op. I, d.4157, II. 201-5

Estatu boteretsuak soilik krimenaren bidez mantendu daitezke.

Estatu txikiak bertutetsuak dira ahulak direlako Bakunin-ei egotzia

TRACK 4

Denboraren zati gehiena bizi den bezala metaforaren munduan bizi delarik, poetak, beti, oso kontzientzia zorrotza dauka honetaz: metaforak ez duela bere funtziotik haratago baliorik; imajinazioaren asmakizun bat, artifizio bat baizik ez dela. Holako moldez non eta, beste batzuk fisikaren legetan legislazio bat ikus dezaketen bitartean, eta beste batzuk Jainkoa giza itxurakoa balitz bezala, argi-urteetan neurturiko bizarrakin eta izar-lainoez eginiko sandaliekin, ikus ditzaketen bitartean, Faustoren moldekoek, bakardadean aurre egin behar diote soilik diren gauzez osaturiko unibertso batean bizitzeko langintzari, eta disimulatu behar izaten dute berezko gabezia hori hainbat metafora eroso eta gupidatsuekin, non eta gizadiaren erdi "praktikoa" jarrai ahal izan dezan Gezur Handiarekin, fidaturik bere makinek, sutondoek, kaleek eta klimak xede gizatiar berdintsuak, ezaugarri pertsonal identikoak eta bere osagaien egoskorkeria suminal antzekoa partekatzen dutela.

Thomas Pynchon. V.

Zer da orduan egia? Metafora, metonimia, antropomorfismoen samalda bat mugimenduan, hitz batez, giza-harremanen metaketa bat poetikoki eta erretorikoki goratuak, estrapolatuak eta apainduak izan direnak, erabilera luze baten ondoren, herri batek ziurtzat, kanonikotzat eta lotesletzat kontsideratzen dituenak; egiak ilusioak direla ahaztu duten ilusioak dira; higatu diren metaforak, jadanik indar hunkiberarik gabeak, bere trokelatua galdu duten monetak eta ez direnak orain moneta gisa metal gisa baizik balioetsiak.

F. Nietzsche. Egia eta gezurrari buruz zentzu extramoralean

Dena den, mundu honetan denekin engainatzen dute jendea […]. Hitz batez, dena engainu handi bat da, exajerazioz esanez, engainu erraldoi bat. Gertatzen dena da, ordea, gizaki guztiok, bizi diren bitartean, primeran sentitzen direla engainatuak izaten direnean. Hori norberak berez ikus dezake. Egunero estropezu egiten da engainuren batekin. Hotelari izan, edo kafetegi batean, itsasoan edo mendian… funtsean dena engainu bat da eta autoengainu bat, baina egia esan egundokoa da. Engainurik gabe dena erroiztuko litzateke eta ezer ez zen egongo. Azken finean, mundua bere osotasunean engainu bat da, ez? Eta Zeruko Erreinua baita ere, eta Infernua ere. Horrela bada, engainua badago goian eta behean, eta engainu bizi garen lekuan, hau da, Lurrean. Eta norbait hiltzen danean ere, engainu bat da. Baina, agian, Zerura iristean ez da holakorik izango, posible da. Poztu zaitez!

Thomas Bernhard. Krista Fleischmann-ekin solasaldiak.

TRACK 5

Petrikilo: Amodio arazoak

osasuna eta familia nahi baduzu, inpotentzia

droga erretzeari utzi nahi badiozu

sentimentalak eta espiritualak

familia berriro bildu nahi baduzu arazorik gabe

arazoren bat baldin baduzu:

zure gorputz barruan mina, edozein lan mota…

zure etorkizuna kontsulta ezazu

Drame Jauna.

Zure profila: KAPRIKORNIO

Lurraren zeinu gisa, birtuterik handiena anbizioa izanik,

adoratzen zaituzten jende askorekin aurkituko zarete eta beste batzuk gorrotatuko zaituzte, jeneralian beren gogamen organizatua, hotza eta kalkulatzailea dela medio, lasai xamar egiten diote aurre bere agintekerak sorraraz dezakeen erresuminari. Batzuk pentsatzen dute pesimistak direla, baina ezta pentsatu ere; gertatzen dena da gauzen alde ilunari begiratzea gustatzen zaiela balizko jazoeretara prestatuak egotea eta horrela egoerei hobeto aurre egin, bai badakite errendimendu bat ona izanik ere, beti izan daitekeela askoz ere hobeagoa.

mujerhoy.com

“Zientzia” metafisikoetatik –tarot, astrologia, kiromantzia…--numerologia da gutxien ezagutua edo ulertua.

Gure zenbakia jakiteko batu behar ditugu gure jaiotze-dataren zenbakiak eta 9 baino gehiagoko zenbakia lortzen badugu, berriro sinplifikatu 1 eta 9 arteko digitu bateko zenbaki bat lortu arte.

[1 da] kreatibitatearen zeinua, independentzia, orijinaltasuna, niaren zentzua eta autoaskitasunarena. Izaera norberekoia eta erasokorra. Ekintzak abian jartzen dutenak dira, espiritu bide-urratzaile, kuraia, borondate eta ausardia neurriz kanpokoa.

Euroresidentes.com

Sapere aude! Ausart zaitez zure zeure arrazoiaz baliatzen!: hona hemen Ilustrazioaren lema. […] jadanik erreza da jendea bere kabuz ilustra dadin eta, baita ere, askatasunean uzten bazaio, ekidinezina.

Kant. Zer da Ilustrazioa? galderari erantzuna 1784

TRACK 6

Marketinari leporatzen zaio produktu, osagai eta marka berrien ugaritzearen erantzule dela, eta horiek direla medio kontsumitzaileak kalitate/prezio-ren artean benetako alderaketak egiteko eta, ondorioz, erosketa egokiak egiteko geroz eta gaitasun gutxiago duela […] Antza handia duten ekoizkin gehiegi daude eta askotan, marketin-tekniken bidez, artifizialki soilik bereizten dira edo kontsumitzailearentzat antzeman ezinak diren moduz.

Inaki Garcia Arrizabalaga.

Marketin/ konsumerismorako sarrera bat.

PP: “España serio hartuz”

PSOE: “Etorkizun bat gehiengoarentzat”

Podemos: “Herrialde bat zurekin, Ahal dugu”

Ciudadanos: “Botoa eman ilusioz”

Unidad Popular-Izquierda Unida: “Herrialde berri baten alde”

UPyD: “Askeak”

2015eko hauteskunde orokorretako goiburu batzuk

Expansion.com-en begiratuta 2015/12/18

Baina saltzaile handien eta publizitate- diskurtsoen eta marketineko kontzeptuaren eraginaren pean denbora aski luze batean baldin bazaudete –adibidez, larunbata goizaldeko lehen marrazki bizidunetatik hasiz--, soilik denbora kontua da dena funtsean salmenta eta marketina dela sinistera iristeko, eta norbaitentzat inportanteak zaretela edota norbaiti idearen edo kausa jatorren bat inporta zaiola irudi duenean, beti, norbait hori, saltzaile bat dela […]

[…] merkatuak baldintzaturiko gure sinismena sendotzen denean, azken finean mundu guztia bere buruari begira ari dela eta bizitza salmentan eta etekinean oinarritzen dela, eta “zerbitzua” eta “justizia” eta “komunitate” eta “patritismoa” eta “betekizun” bezalako hitz eta adierazpenak […] besterik ez direla industria politikoan eraginkortasun frogatua duten publizitate-esloganak baizik, modu berberean hortzetako pastaren industriaren esloganak “hatsa-freskatzaile”, “antisarro” diren bezala. Haien alde botoa eman dezakegu, hortzetako pasta erostea joan gaitezkeen bezala. Baina ez gaituzte inspiratzen. Ez dira errealak.

David Foster Wallace, Gora, Sinba.

TRACK 7

Larunbata igaro eta asteko lehen eguna argitzean, Magdalako Maria eta beste Maria hilobia ikustera joan ziren.[…]Jaunaren aingerua jaitsi zen zerutik eta, hurbildurik, harria biratu zuen eta gainean eseri. […] Hura ikustean, beldurrez dardar eta hilda bezala gelditu ziren zaintzaileak. Baina aingeruak emakumeei mintzatu zitzaien, esanez: "Zuek ez beldurtu. Badakit Jesus gurutziltzatuaren bila zabiltzatela. Ez dago hemen, biztua baita, esan zuen bezala". […] Hilobitik arin-arin aldegin eta, ikaraz eta poz-pozik, ikasleei berri ematera joan ziren lasterka.

Mateo, 28: 1-8

Larunbata igaro zenean, Magdalako Mariak, Maria Santiagoren amak eta Salomek usaingozoko ukenduak erosi zituzten, Jesusen gorpua gantzutzeko. Eta asteko lehen egunean, goizean goiz, eguzkia atera orduko, hilobira joan ziren. Honela ari ziren beren artean: "Nork kenduko digu hilbi-sarrerako harria?". Begiratu eta harria alboratua zela ohartu ziren, oso astuna zen arren. Hiloabian sarturik, gazte bat ikusi zuten eskuinaldean exerita, sineko zuriz jantzia, eta erabat izutu ziren. […] Emakumeak hilobitik ihesi alegin zuten, sartu zitzaien izu eta ikaraz; eta beldurraren beldurrez, ez zioten inori ezer esan.

Markos, 16: 1-8

Baina asteko lehen egunean, goizean goiz joan ziren emakumeak hilobira, prestaturiko ukenduak berekin zituztela. Hilobi-sarrerako harria biratua aurkitu zuten. Sartu ziren, baina ez zuten Jesus Jaunaren gorpua aurkitu. Zer pentsa ez zekitela zeuden, eta, hartan, bi gizseme agertu zitzaizkien jantzi distiratsuz. Emakumeak ahozpez lurrera erori ziren ikaraz […] Hilobitik itzulirik, gertatu guztiaren berri eman zieten Hamaikei eta gainerako ikasleei. Magdalako Maria, Joana eta Maria Santiagorena ziren emakumeok; hauekin batera zeuden emakumeek ere gauza bera esaten zieten apostoluei.

Lukas, 24: 1-10

Asteko lehen egunean Magdalako Maria hilobira joan zen goizean goiz, artean ilun zegoela, eta harria hilobitik kendua ikusi zuen. Orduan, Simon Pedrorengana eta Jesusek maite zuen beste ikasleagana itzuli zen lasterka, eta esan zien: "Eraman egin dute Jauna hilobitik, eta ez dakigu non ipini duten". Irten ziren orduan, Pedro eta beste ikaslea eta hilobirantz jo zuten. Biak batera zihoazen korrika, baina beste ikaslea Pedro baino arinago zihoan, eta lehenago iritsi zen hilobira. Barrura begiratzeko makurturik, oihal-

zerrendak lurrean zeudela ikusi zuen, baina ez zen sartu. Iritsi zen haren atzetik Simon Pedro eta sartu zen hilobira. Oihal-zerrendak lurrean ikusi zituen, baita Jesusen burua biltzen egoniko zapia ere; baina hau ez zegoen oihal-zerrendekin batera jarria, beste toki batean aparte bildua baizik. Orduan, sartu zen beste ikaslea ere, hilobira lehenengo iritsi zena. Ikusi eta sinetsi egin zuen. Izan ere, ordura arte ez zuten ikasleek ulertu Liburu Santuak dioena, Jesusek hilen artetik biztu behar zuela, alegia. Pedro eta beste ikaslea etxeratu egin ziren.

Maria hilobi ondoan gelditu zen, kanpoan negarrez. Halako batean, oraindik ere negarrez, hilobirantz makurtu zen eta bi aingeru ikusi zituen zuriz jantziak, Jesusen gorpua egon zen tokian exerita, baita burualdean eta bestea oinetan. Aingeruak esan zioten: “Emakume, zergatik ari zara negarrez?” Hark erantzun zien: “Nire Jauna eraman dute, eta ez dakit non ipini duten”.

Juan 20: 1-13.

KODA

Haurra, atera zaitez jada sutik

Ez zaitez egokitu

sugarraren sakontasunean.

Nik ere uste izan dut ikusten nuela

nire saminean unibertsoaren samina.

Adam Smith-en esku ikustezinak

posible egingo balitu bezala nire bihotzaren taupadak.

Eta uste izan dut ulertzen nuela nire buruko mina dela

hats baten hilzoria Sirian,

nire behatzun-kalkuluak

dinosaurioak akatu zituzten meteoritoak.

Nik ere pentsatu dut

ezin naizela izan dakien bakarra

zilarrezko 30 moneta baino gutxiagogatik

bere jaunari traizio egingo ziola,

galtza berri batzuek baino gutxiagogatik

nazioak esklabo bihurtuko zituela,

Itaka New York dela zeina den Babel

Zeina den industrialdea bat etenik gabe

musikaren bolumena (itoak daudenen hatsa)

igotzen ari dena

Ezin naizela izan dakien bakarra

hego-astintze bat baino gutxiagogatik

desagertu zirela zibilizazioak.

LED argi hori eguzki hotz bat dela

asepsiaren mugak

etengabe haztatzen ari dena.

Tekleatze nekaezin hori

erlijio bat dela, horrengatik hiltzen direla

biziegirik jaio zirenak.

Eta nere hortzetako lertzoan uste izan dut ikusi dudala

hilerri nuklearrak, zeru zabaleko meatzeak

nondik erroitzen diren aingeruak.

Zeren Los Angeles da Madrid zeina den Belfast

zeina den japoniarrek bere buruaz beste egiteko

aukeratzen duten lekua: Wahala

Badakit

ez naizela dominstiku egiten duen aldiero

haur afrikarrak hiltzen dituen bakarra,

mukiak zintz egiten dituen aldiero Nueva Delhi

urpetzen duela

eta ezer , ezta hutsune bat ere, sentitzen ez duten horietako bat ez

naizela.

Eta haatik, estorninoen dantzak

hain ederra dirudi beti. Eta faszisten

planak beren ahoak odolez betetzeko.

Hain ederra dirudite sukarrak,

usteltzen doan haragiak, haize gehiegi egiten zuen lekuan

zabaldu nahi izan zenituen aitaren errautsak

Zetaren araztasuna bada ere

bere komertzioa kontrolatzeko gerra.

Eta funtsezkoa da hau ondo ulertzea

eta funtsean alferrikakoa,

uste izan dudalako liburu batean ikusi dudala

unibertsoaren gauza guztien azalpena,

baina orrialdeak hautsita zeuden

eta nahasiak. Hitzek ez zuten beti

silaba guztiak eta lehian ari zirela zirudien,

elkartuz eta bananduz. Bere monemak

maiz huts egiten zuten eta gaixo erortzen ziren.

Eta baziren izenak aditzak zirela uste zutenak
eta izenondo izatera jotzen zuten juntagailuak.

Preposizioek bere amonen galeragatik zinkurinatzen zuten
eta egitura sintaktikoari egozten zioten errua, erregimenari
eta honen osagaiei.

Eta jainko nahasia sentitu nintzen
gizadia irakurtzen saiatuz,
beti porrotera destinaturiko
teoriak eta ikasketa planak zirriborratzen.

Haurra, irten zaitez jada suatik
eta lehioa ireki.

Uler ezazu poemak ez direla amaitzen,
soilik une batez gelditzen direla
arnasa berreskuratzeko,

igandea bait da, eta biharko
guzti honetaz ezer ez bageneki bezala
itxurak egin beharko da.

Oscar Manso

Errenteriako Mikelazulotarra.

“Breve Historia de los Conquistadores”,

“Heroes y monstruos”,

“Sugarraren Sakontasuna”

idatziak,

“Muskulo” musika taldeko kitarrajole,

H artistarekin hainbat emanaldi eman,

lanetik bizi,

bizitzaz gozatzen saiatu.